

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2010eko azaroaren 30a. VIII. urtea. 2.131. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Luluaga, Garaiar, Agirre, Imanol Otermin, Lander Otermin eta Arsuagak osatzen dute Ibarra A taldea. Entrenatzaile bezala aldiz, Angel San Roman aritu da. A. IMAZ

Ibarra Euskal Herriko txapeldun

320 kiloko 4x4 sokatira txapelketaren finala jokatu da Ibarako Belabieta kiroldegian; goma gainean etxeko taldea izan da onena, ezusteko handia eman ostean

Kitarako lehiak jokatu ostean Berriozarko taldea gelditu da bigarren postuan; faborito nagusia hirugarren gelditu da, Abadiño A, hain zuzen ere o6

Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz Tolosan zazpi lanpostu berri egongo dira

Kontratuek sei hilabeteko iraupena dute eta jadanik, baldintza hauetan, 49 laguni eman diote lana; Tolosan urrian 1017 langabetu zenbatu zituzten, hauetatik 530 emakumeak o4

Txotxongilo Jaialdiak Topic-en urteurrenarekin bat egin du

Gorosabel auditorioan Taller del Park taldearen 'Zuloa txapelean' lana ikusteko aukera egongo da gaur 18:00etan o3

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maité

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Diodo laserra
Behin betiko depilazioa

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta
tarifa bereziak gazteentzat



Asteburua irudietan ◊

Tolosa ◊



ELKARTASUN EGUNA

Larunbatean, egun osoko festa izan zen. Elkartasun eguna, «Euskal Preso Politikoei elkartzasuna adierazteko» izan zen eta era berean «sakabanaketa politikoa injustiziarri aurre egiteko». Hasiera, ume jolasekin egin zuten eta kalejiraren ostean, bazkaria izan zen Plaza Berrian. «Elkartasuna ez da delitua. Euskal Presoak Euskal Herrira dagozkien eskubideen jabe» lelopean manifestazioa egin zuten herriko kaleetatik. Eta egunari amaiera emateko, ferialekuan, kontzertuak izan ziren. Hotza eginagatik ere, jendeak erantzun zuen. HITZA

Amezketeta ◊



GERNIKAKO AKORDIOA SINATUTA

Larunbatean Amezketako talde politikoei eta sindikatuek Gernikako Akordioaren sinatze ekitaldia egin zuten. Bertan Sarasola Aralar Papelerako LABeko ordezkaria, Altuna Aralar Papelerako ELAko ordezkaria, Zabala ezker abertzaleko kidea, Iñurrita alkatea eta Kimu Berriak taldeko kidea, Artola Amezketeta Elkarlanean taldeko kidea eta Karrera EHNEko ordezkaria izan ziren. Sinatzaileek herriko elkartei dei egin diete abenduaren 9an, 20:00etan balioanitzeko gelan egingo den bilerara. LGARCIA

Hernalde ◊



INAUGURAZIO EKITALDIA

Hernaldeko Santa Kruz Plaza, Ernio-Bide frontoia eta Maioz-Olatzabarrena base-riren arteko bidearen inaugurazio ekitaldia izan zen larunbatean. Igaro Balda alkatea, Florentino Ugalde, Etorlurreko gerentea eta Rafael Uribarren, Landa Ingurunearen Garapeneko diputatua izan ziren, hainbat herritarrekin batera. HITZA

Altzo ◊



'ZU ZEUIZAN' ANTZEZLANA

Bazen Behin Clown taldeak *Zu Zeu izan* antzezlan eskaini zuen Altzoko elizan. Bulling-a edo ikaskideen arteko harreman ezkorrak jarraitu zituzten. Antzezlan, haurrei hausnarketa eragiteko pentsatua dago. Haur eta heldu, clown obra ikustera joan ziren eta herriko eliza guttiz bete zuten. IMANOL GARCIA

Abaltzisketa ◊**TONTORRAK ZURIZ JANTZITA**

Asteburuan zuriz jantzita esnatu dira eskualdeko mendi tontor altuenak. Hotza, elurra eta izotza izan dira. Eskualdeko herri altuenetara ere iritsi da elurra, Bidegoian edota Leitzara. Merkurioa ere, izotzuta geratu da eta zero azpitik markatu du leku askotan. Hurrengo egunetan ere bide beretik jarraituko du eguraldiak. HITZA

Villabona ◊**EGUN BATEZ ANTZERKIA NAGUSI**

Lehen Antzerkizale eguna ospatu zuten larunbatean Villabonan. Berdura plaza goraino bete zen haur eta helduez. Pailazoak, kale animazioa, bazkaria, ... denetarik ikusi ahal izan zen: Hare Krishna talde bat, jauskaria, erditze clownikoa, ... Iluntzean Gurea Zineman izan zen ekitaldia eta lehen saria Iñaki Beobideri eman zioten. I. GARCIA

Asteburuan zabaldu ditu ateak Txotxongiloen jaialdia

Larunbatean egin zuten inaugurazio ekitaldia; aste guztian zehar izango dira emanaldiak haur nahiz helduentzat

Erredakzioa Tolosa

28. Titirijai Nazioarteko Txotxongilo jaialdia larunbatean ireki zituen ateak. Aranburu jauregian ikusgai den erakusketa zabalduz eman zioten hasiera ekimenari. Japonia da aurtengo lurralde gonbidatua, eta hain zuzen ere, bertako txotxongiloekin osatu dute erakusketa berezia. Herrialde askotatik etorritako 17 txotxongilo konpainia ariko dira abenduaren 5era bitarte, eta horietatik 4 dira Japoniakoak.

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Lurdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Ana Arretxe Titirijai jaialdia antolatzen duen Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak hartu zuten parte hastapeneko ekitaldian.

Bestalde, egun horretan bertan, bete zuten urtebete Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentrorak, eta urteurrena ere gogoan izan zuten, ekitaldian zehar. Kandelak bat piztu zuten eta Ana Arretxe izan zen hunkiturik putz egin eta itzali zuena.

Emanaldiz betetako astea

Aste guztian zehar haurrentzako nahiz helduentzako emanaldiak izango dira Tolosako areto ezberdinetan. Gaur ikastetxei zuzendutako ikuskizunaz gain, herri-

↓ 28. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia**GAUR, AZAROAK 30**

■ **18:00.** Gorosabel auditorioan Taller del Park talde kataluniarren *El agujero en el sombrero* lana izango da ikusgai. Irma Borges da zuzendaria eta familia guztiari dago zuzendua.

BIHAR, ABENDUAK 1

■ **18:00.** Gorosabel auditorioan Farres Brothers talde kataluniarren *Ovni* emanaldia aurkeztuko du. Jordi Palet da zuzendaria eta familia guztiari dago zuzendua.

tar guztiarentzako irekia den beste saio bat ere izango da, Taller del parc kataluniarrena. Txotxongilo-ikuskitan hau, Jordi Sierra i Fabraren *Zulo batean erori zen haurra* gazteentzako eleberrian oinarritua dago. Objektuen poetikan oinarritua, *El agujero en el*

■ **20:30.** Kanadatik datorren Puzzle Theatren *Sin titulo* lana aurkeztuko du Topic-en. Helduei zuzendutako saioko zuzendari dira Csba Raduly eta Pavla Mano.

ABENDUAK 2, OSTEGUNA

■ **18:00.** Andaluziatik datorren Caracarton taldeak *El ultimo pirata* lana aurkeztuko du Gorosabel auditorioan.

■ **20:30.** Otome Bunnaku talde japoniarren *Yoshitune y los mil cerezos en flor* lana ikusgai izango da Topic-en.

sombrero (Zuloa txapelean) errealitate sozialaz ari da, ume baten ikuspuntutik eta umorez jantzita. Laguntasunaren indarrak, eta hamar urteko mutiko baten bizitzako arazoak gainditzeko beharrezkoa den buruargitasunaz mintzatzen da.

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Etxebizitza.** Bidegoian, Goiaz. Prezioa berria eta aukera paregabea. Eraikuntza berriko etxe atxikia salgai. Estreinatzeko, material oso onekin. Portxe, terraza eta lorategiarekin. Interesazinez gero, deitu ondorengo telefono zembakira: 943 30 40 38

■ **Lokala.** Tolosako erdigunean. Iskina egiten duen lokala da eta sotoa ere badu. Erakusleho handiekin egokitua. Aproposabulego, fotokopia edo aldiakari denda, ... 60.000 euroko balioa du. Interes duenak, 943 30 40 38 telefono zembakira deitu beharko du jabearekin harremanetan jartzeko.



Larunbatean izan zen inaugurazio ekitaldia. I. TERRADILLOS

MEKANOGRAFIA IKASTAROA ALEGIAN

MAE akademiak herri honetan eskainiko ditu bere mekanoграфия ikastaro berriak. Aste honetan informazio gehiagorako bisitak egingo dira
Interesa dutenek deitu:
943 37 69 79 edo 943 00 40 30

Tolosako Udala

IRAGARKIA

"7. HIRIGUNE HISTORIKOA" ESPARRUA BIRGAITZEKO TESTU BATERATUAREN ONESPENA.-

Tolosako Alkateak, 2010eko azaroaren 5ean 1922zk. dun dekretuaren bidez, Tolosako "7. Hirigune Historikoa" esparrua birgaitzeko Plan Bereziaren Testu Bateratuari onespena eman zion.

Erabakia behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Erabakiaren kontra Administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabete epean.

Tolosan, 2009ko azaroaren 3an
Behin behineko ALKATEA.
Fdo.- Jokin Azkue Arrastoa.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilera, hurrengo proiektua hasiera batez onestea erabaki zuen:

"14.3 Berazubi Ikastetxea" azpiesparruko borondatezko birpartzelazio proiektua

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 43.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea hogeiguneguz HOGEI EGUNEZ jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoia hau da: nahi duenak dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, Tolosaldeko Hitza eta Berria argitaratuko da. Aurreran aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaletzeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkaterehendakariari zuzenduta.

Tolosan, 2010eko azaroaren 18an.
ALKATEA.

Tolosaldea Garatzen agentziaren zerbitzuen leiho berria

Webgune berria jarri du martxan, «udalen, enpresen, ekintzaileen eta herritarren beharrak erantzuteko»

I. Terradillos Tolosa

Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak webgune berria jarri du martxan «teknologia berriekiko apustua berretsiz». www.tolosaldeagaratzen.net guinea enplegua, ekintzailetasuna eta turismoari buruzko informazioa eskaintzeko tresna «irekia eta erraza» izango da, «udalen, enpresen, ekintzaileen eta herritarren mesederako, haiek baitira, finen, webgunearen sorreraren aitzakia eta motorra».

Ondorengo alorrak izango ditu webgune berriak: Enpresa sailak eskualdeko enpresak lehiakortasunaren bidean garatzen lagunduko du. Enpleguari dagokionez, lanerako eta prestakuntzarako programei buruzko informazioa eskainiko die herritarrei.

Ekintzailetasun arloan, enpresa bat sortu nahi duenarentzat aholkularitza eskaintzen du, eta on-line egitea ere posible da. Turismoaren arloan, bertako eragileek «kalitateko zerbitzu bat ematearen alde» lan egiten dute. Udalen sailak eskualdeko udalen artean kudeaketa «eraginkor» bat sustatzea du helburu. Gizarte arloko, azkenik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen bulegoa eta inmigrazio bulegoa hartuko ditu.

o tolosa@hitza.info



Agentziaren webgune berria. HITZA

Udalak langabezian edota bazterketa egoeran dauden 49 pertsona kontratatu ditu

Beste zazpi lanpostu argitaratuko dituzte Lanbiden; eskatzaileek hainbat ezaugarri bete beharko dituzte

Iñigo Terradillos Tolosa

Tolosako Udalak +Euskadi 09 ekimena baliatuz 49 lagun kontratatu ditu iragan uztailetik, eta datorren urteko urtarrila bitarte, gehiago kontratatuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren ekimenak 57 lanpostu aurreikusten baititu Tolosarako. Hain zuzen ere, zazpi lanpostu geratzen zaizkio betetzeko Udalarri, eta horiek Lanbideren web orrian (www.lanbide.net) argitaratuko dituzte.

Lanpostu horietara aurkeztu ahal izateko, ezaugarri batzuk bete beharko dituzte eskatzaileek: INEM edo Lanbiden egon behar dute izena emanda eta ez dute langabezia kontribuziorik jaso behar edo diru sarrerak bermatzeko errenta jaso dezakete, azken hauei lehenetsuna emango zaielarik. Gizarteratze agentea, inguruneko agentea, jolas eta kirol ekintzen dinamizatzailea, teknologia berrien teknikaria, kirol teknikaria, aukera-berdintasuna sustatzeko teknikaria eta topografiko teknikaria dira bete nahi dituen zazpi lanpostu berriak. Horiatarako hautagaiak «lanpostuarekiko egokitasunaren eta euren curriculumaren arabera» aukeratu dituzte.

Gizarteari «bultzada»

Orain arte kontratatu dituztenei dagokionez, bi talde nagusiri zuzendu zaiola ekimena esan daiteke: batetik, ikasketak zehatzik ez duten pertsonen eta, bestetik, erdi eta goi-mailako ikasketak dituztenei, baina lan esperientzia eskasa duten gazteei.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatuek adierazi duenez, «ekimen



Goroldi enpresan, esaterako, hainbat langile kontratatu dituzte. HITZA

honi esker, gizarte bazterketa jasan dezaketen pertsonen lan egin dezakete eta gazte askok lehen lan esperientzia bizi dezakete». Era berean, enplegua sustatzeaz gain, gizartea hobetu eta suspertzea lortzen dela dio Tolosako alkatuek: «Izan ere, jendea soldata ematearekin batera, ilusioa eta motibazioa ematen zaio, eta hori oso onuragarria da gizarteak aurrera egin dezan».

Askotariko lanak

Kontratatu dituzten 49 lagun horiek, taldeka banatuta, lan desberdinetan aritu dira: Elosegir Parkean edo Santa Lutzia auzoko erruki-etxe zaharreko inguruan birsortze eta garbiketako lanak egin dituzte; herriko seinalizazio bertikal eta horizontalen konponketa, garbiketako eta mantentzea egin dute; auto-erabilpenaren inguruko datu-bilketa egiten edo bide-hezuntzako kontzientziazte ekintzak garatzen aritu dira eta etxebizitzaren egoeraren inguruko ikerketa eta Tolosako landa-bideen mapa gauzatu dute, besteak beste.

Sei hilabeteko iraupena duten kontratu hauen %35 herriko erakunde pribatuen kolaborazioarekin egin ditu Udalak, berarekin

zerbitzu kontratu bat esleituta dutenekin, alegia. 49 kontratatuetatik %57 emakumezkoak dira, eta %43 gizonzkoak. Adinari dagokionez, %23k 25 urte baino gutxiago ditu, %61ak 25 eta 44 urte artean eta %16k 45 urte baino gehiago. Kontratatu dituzten %37k diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuen.

Hurrengo urtean jarraipenik ez Eusko Jaurlaritzak 821.000 euro jarri ditu pertsona hauek guztiak kontratatzeko. Azaldu dutenaren arabera, ekimenak ez du jarraipenik izango datorren urtean. Jokin Bildarratzen ustez, ordea, jarraipena ematea «oso garrantzitsua» izango litzateke. Dena den, Tolosaldea Garatzenekin batera, formazioa bultzatuko dugu, bakoitzak 60.000 euro jarrita; datorren urtean abiaraziko dugu enplegua sustatzea helburu duen ekimena, azaldu du Bildarratzek.

INEMek emandako azken datuen arabera, hau da, urriko datuei erreparatzen badiegu, 1.017 langabe daude Tolosan. Horiataratik, 530 dira emakumezkoak eta 487 gizonzkoak.

o tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Batzar informatiboa gaur AHTren inguruan

TOLOSA > Batzar informatiboa egingo dute gaur, «AHTk Tolosaldean eragingo dituen kaltearen inguruan», Olarraingo elkartean. 20:00etan hasiko da batzarra, eta herritar guztiei irekia da.

Elikadura portaerei buruz hitzaldia, etzi Orixen

TOLOSA > Elikadura portaeren nahasteak. Informazioa eta prebentzioa hitzaldia emango dute Orixen Institutuan, etzi, hilaren 2an. Elikadura portaeren nahasketaren definizioaz, ondorio fisiko eta psikologikoez, eragin zuzena duten faktoreez, familiak egin dezakeen eta Acabe elkartean eginkizunaz ariko dira, besteak beste. Goro-sabeleko E gelan izango da, 19:00etan, eta Acabe elkarteko psikologoei emango dute.

Hitanoari buruz hitzaldia, bihar Aitzol euskaltegian

TOLOSA > Aitzol Udal Euskaltegiaren 29.urrenaren harira, *Gazteak eta hitanoa* hitzaldia emango dute Goro-sabeleko eraikuntzako lehen solairuan, bihar 09:30ean. Tolosako ikas-tetxeetako bigarren batxilergoko gazteei zuzendua den arren, herritar guztiei irekia izango da. Hitanoaren inguruan azterketa sakona egin duen Ritxi Lizartza izango da hizlaria.

Txintxarri abesbatzaren entsegua, gaur gauean

ALEGIA > Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak Eguberrietako kontzertua emango dute, Tolosako Musika Eskolako bandarekin batera, abenduaren 19an. Urtero bezala, Haendelen *Alleluia* abestuko du abesbatzak. Hori dela eta, koruan kantari ibilitako guztiei dei egiten diete kantu hori abesbatzarekin batera abesteko. Gaur egingo dute lehen entsegua, 21:00etan, Kultur Etxean.

URREA EROSTEN DUT

Momentuko ordainketa eskura

Aldatu ezazu urrea euroen truke

Edozein eskaintza hobetzen dugu

TASAZORIK ONENA !!

Rondilla kalea 25, beheka

200 KONTAKTU BADITUZU, ZERGATIK DUZU BIRI SOILIK DEITZEKO AUKERA?



TELEFONIA MUGIKORRAK
ALDATU BEHARRA DAUKA.
HAS GAITEZEN.

SIMple

5 ZENT.
/MIN NOIZNAHI.
NORNAHIRI.
BETI.



Kirolak**↓ Emaitzak****PILOTA****LAU T'ERDIKO TXAPELKETA**

Finalaurrekoak	
Abel Barriola	22
Titin II	16
Irujo	22
Gonzalez	13

Finala: abenduaren 12an

Abel Barriola - Irujo

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mugika (Aurrera-Saiaz)	5
Zazpi-Isturri	18
Segura	15
X. Galarraga-Iruretagoiena	22
Hernani I	6
Urdanpileta-Aburuza	22
Intxurre	22
Perez Albeniz	20
Intxurre	17
Labaka-Barandiaran	22
Ilunpe	15
Maiza-Elustondo	22
Zestoa	10
Perez-Albisu	22
Zabaleta-Arratibel	3
Zumaia	22
Labaka-A. Galarraga	19
Mundarro	22
X. Urbietta-Zinkunegi	13
Zazpi-Isturri	22
Mugika-Otaegi	22
Intza	16
Ilunpe	22
Quina-Telletxea	21
Ozkarbi	22
Apeztxea- E. Galarraga	19
Bergara	22
Sukia-K. Galarraga	12

SASKIBALOA**LEHEN MAILA**

Zortzigarren jardunaldia	
Fincas Bilboetxe La Peña	64
Take Bide Bide Ibiza	71

Sailkapena

1. Fundacion Baskonia (8-1)
2. Santzurtzi (6-3)

7. Bide Bide Ibiza (4-5).**FUTBOLA****ERREGIONAL OHOREZKO**

MAILA	
Hamabigarren jardunaldia	
Real Union	2
Tolosa	2

Sailkapena

1. Hernani (28 puntu)
2. Pasajes (28 puntu)
13. Tolosa (13 puntu).

ERREGIONAL PREFERENTEA

Hamabigarren jardunaldia	
Tolosa 'B'	0
Elgoibar	3
Intxurre	4
Orioko tabernak	3

Sailkapena

1. Zestoa (25 puntu)
8. Tolosa 'B' (16 puntu)
15. Intxurre (6 puntu).

ARETO FUTBOLA**NAZIONAL A MAILA**

Hamaikagarren jardunaldia	
Lauburu Ibarra	9
Atletico Aretxabaleta	3

Sailkapena

1. Zierbana (28 puntu)
3. Ibarra (21 puntu)

NAZIONAL B MAILA

Hamargarren jardunaldia	
Laskorain Ikastola	2
Concepto-Creatch	1
Donost. Zuzenbide/Naturgas	5
Irish Pub Sheperd	5
Transportes Lakunza	9
Elorrioko Buskantza K.E.	3

Sailkapena

1. Concepto Creatch (27 p.)
2. Laskorain Ikastola (25 p.)
10. Transportes Lakunza (11 p.)
12. Irish Pub Shepherd (10 p.)

Txapeldunen txapelduna



Ibartarek zuten guztia eman behar izan zuten txapela lortu ahal izateko. HITZA

Aurreikuspen guztiak apurtu zituen Ibarra A taldeak Euskal Herriko sokatira txapelketa bereganatuz

Asier Imaz Ibarra

Ibarrako Belabieta kiroldegian jende ugari elkartu zen larunbatean, Euskal Herriko sokatira txapelketako 320 kiloko finala ikusteko asmoz. Txapela lortzeko lehian sei talde, eta denen gainera faborito bakarra: Abadiño A. Baina iazko txapeldunek, arratsalde luzea zuten aurretik eta lehen arazoak etxekoan aurkako tiraldietan etorri ziren.

Abadiño A eta Ibarra Aren arteko lehian bizkaitarrek irabazi zituzten bi tiraldiak, baina gogo-

tik lan egin ondoren. Epaileak gainera, euren lanarekin ez ziren gustura gelditu azken tiraldian. Borroka gogor baten ondorioz bi taldeak bina faltarekin aurkitzen ziren. Lehertuta lurrean bueltaka zebiltzala, epaileak Ibarriari hirugarren falta eman zion, tiraldia Abadiño Ari oparituaz. Erabakia hartu ondoren euren zalantza eta damua azaldu bazituzten ere, hiru puntuak bizkaitarren patrikan aurkitzen ziren. Alde guztiek ordea, kiroltasunez onartu zuten epailearen une horretako erabaki zaila.

Nekeak ordea, irabazleengan eragin handiagoa izan zuen galtzaileengan baino. Gauzak horrela, Berriozarren aurkako bi tiraldiak galdu zituen ondoren Abadiño Ak.

Denak denen aurka jokatu ondoren, hiru talde berdindurik gel-

ditu ziren 12 punturekin, bostetik lau lehia irabazita: Abadiño A, Berriozar eta Ibarra A. Kitarakoari bi kanpotarrek ekin zioten. Zortea izan zuen Ibarrak, lehertu egin baitziren lehia honetan bizkaitarrek eta nafarrak. Azkenean gainera, bakoitzak tiraldi bana irabazi zuen.

Ondoren, ibartarren txanda iritsi zen. Berriozar nekatu bati bi tiraldiak irabazi zizkien lehenik. Horren ondoren, Abadiño A-ekin gauza bera egin zuten eta ondorioz Euskal Herriko sokatira txapelketa etxean gelditu zen.

Ibarrako taldea ondorengoek osatu zuten txapelketa guztian zehar: Mikel Arsuaga, Joxe Mari Agirre, Jose Luis Garaiar, Lander Otermin, Imanol Otermin eta Aitor Luluagak. Entrenatzaile bezala berriz Angel San Roman ibili zen.

Hilberria**BENANTXIO AIERBE APALATEGI**

- Goian bego -

Askatasuna eta bakearen alde hik emandako testimonio eredugarria jarraituko diagu. Gurekin taldean, tartean izango haiz beti Benantxio

Goierriko Lokarri taldea

GOIERRI, 2010eko azaroaren 30a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurleESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Mendizabalek herriaren eta herri kirol munduaren omenaldi hunkigarria jaso du

Harri-jasotzaile eta aizkolari ugari bildu ziren ekitaldian eta herritarrek frontoia bete egin zuten

Erredakzioa Aduna

Joxemari Mendizabalek omenaldi hunkigarria jaso zuen Adunan, bere jaioterrian, eta bertan izan ziren herri kirol munduko hain-

bat partaide. Mendizabal martxoaren 28an hil zen Tolosako zezen plazan Olasagastiren aurka apustua jokatu ondoren. Herri kirolen munduan ezaguna egin zen Mendizabal, hasieran harri-jasotzen eta batez ere aizkoran.

Adunako frontoia bete egin zen eta 35 harri-jasotzaile eta aizkolariaren jarduna ikusi ahal izan zuten. Baina protagonista Mendizabalen sendia izan zen. Omenaldiari hasiera emateko aizkolariak pasillo bat egin zioten familiari

eta koadro handi bat oparitu. Bertan Mendizabal bere azken apustuan agertzen zen, zutikako kanako enborra moztzen. Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak bertsoz jantzi zuten ekitaldia.

Mendizabal Adunan jaio zen eta Leitzan (bertan lurperatu zuten) eta Urdiainen bizi izan zen. Igandeko ekitaldian, kanpoan giro hotza bazen ere, adunarrek eta herri kirolariak beraien gogoz izan zuten historia egin duen aizkolaria.



Mendizabalen familia izan zen protagonista eta herri kirolarien omenaldia jaso zuen. SARA GOMEZ



Jendez lepo bete zen Adunako frontoia Mendizabal omentzeko. SARA GOMEZ



Omenaldiko bi une: Iñaki Gorostidi adunarra harri-jasotzen eta Floren Nazabal aizkoran. IBONERRAZU

Barriolaren eta Irujoren artean jokatuko dute lau t'erdiko txapela

Leitzarrak 22-15 hartu zuen mendean Titin eta Irujok 22-13 irabazi zion Gonzalezi; abenduaren 12an izango da finala

Erredakzioa Leitza

Barriolak Titini 22-15 irabazi ostean eta Irujok Gonzalezi 22-13 irabazi ondoren, lau t'erdiko finala erabakita gelditu da. Atano III.a frontoian, Donostian, abenduaren 12an jokatu dute elkarren artean bi nafarrek. Larunbatean Barriolak Titini irabazi zion eta igandeko norgehiagokarako kalkulagailu guztiak mahai gainean zeuden. Titinek, hiru partidak galduta, ezin zuen finalera pasatu, baina Barriolaz gain, Irujok

eta Gonzalezek aukera zuten finalerako txartela lortzeko.

Azkenean, kalkulagailu asko ez ziren erabali behar izan, Irujok partida irabazi baitzuen. Horrela, Irujok finalerdietan jokatu dute hiru partidak irabazi ditu, Barriolak bi partida irabazi ditu, Gonzalezek partida bat eta Titinek, esan bezala, bat bera ere ez.

Barriolak memento gozoa bizi du berriro ere bere jokoan, baina Irujo izango du aurrean finalean. Gainera, finalerdietako aurrekaria dago. Orduan Irujok 22-16 irabazi zion leitzarrari. Hori bai, Barriola 2-10 irabazten hasi zen. Irujok bere joko guztia ateratzen duenean ia geldiezina izaten da, baina bere izaera biziak partida galdurazi liezaioke. Hor izan lezake leitzarrak bere aukerarik onena.

Lauburuk 9-3 irabazi dio Atletico Aretxabaletari Belabietan

Erredakzioa Ibarra

Lauburuk garaipen bete lortu zuen Belabietan Gasteizko Atletico Aretxabaletaren aurka, 9-3 irabaziz. Erritmo eta presio handia eman zioten partidari ibartarrek eta gasteiztarrek ezin izan zioten etsi.


Lehenengoak gola sartzen Lauburukoa izan ziren eta horrek kemen gehiago eman zien aurkako atearan bila joaterakoan. Horrek lehen zatian beste bi gol ekarri zituen eta 3-0 erosoarekin joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatian gasteiztarrek gehiago asmatu zuten eta 5-3 jarri ziren unebatean. Baina ibartarrek jarrain sartu zuten 6-3koa eta beste hiru golak azken txanpan iritsi ziren.

Liderra menpean hartu zuen Laskorainek Usabalen

Erredakzioa Tolosa

Laskorainek liderraren aurka garaipena lortu zuen Usabalen. Tolosarrek 2-1 irabazi zioten Concepto Createch taldeari. Norgehiagoka modu txarrean hasi zen etxe koentzat, kanpotarrak berehala aurreratu baitziren estrategiako jokaldi bati bukaera bikaina emanaz. Egoera ezin oke-rragoa Javiren mutilentzat, lehengo minutuan 0-1 galtzen hasiz.

Presioa, defentsa, joko eta intentsitate nabarmenki nagusitu ziren etxe koak bigarren zatian eta markagailuari buelta ematea lortu zuten. Orain Laskorain liderrarengandik bi puntutara dago sailkapenean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	6°
HOTZENA	1°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!

Bernabe eta Maria Vitoria (Berrobi), 1960ko azaroaren 30ean ezkondu ziren. Bere negu, udaberri, uda eta udazkenekin, berrogeita hamar urte elkarrekin. Zuen familia.



Urte askoan!

Aratz Alkain Gorostidi (Amezketeta), 7 urte. Zorionak etxekoen, eta bereziki, Garazi eta Josebaren partetik.



Urte askoan!

Yelena Rojas Gracial (Alegia), Igandean urtebete egin zuen. Zorionak eta muxu asko, Joseba eta familiaren partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Irudia Albiztur



DERBIRAKO PRESTATZEN

Realak eta Athletic-ek igande honetan jokatuko duten derbia iragartzeko, spot bat grabatu dute Albizturren. Bertan, aktore lanetan aritu dira Bizkaiko taldean jokatzeko duen gipuzkoar bat eta alderantziz, Realeko jokalaririk den bizkaitarra. Andoni Iraola eta Jon Ansotegi dira iragarkiko protagonistak, beste gaztetxo batzuekin batera. Gainera,

Euskararen Eguna dela eta euskaraz grabatu dute eta bi euskalkiekin jokoa egin. Aurtengo ligari begira hiru spot grabatu dituzte, lehendabizikoa Athletic-ekoekin, bigarrena, Realekoekin, eta azkena, biak elkartuta. Grabazioa Anoetan ikusi ahal izango da igandeko partidari hasi baino lehen. E.EZEIZA

Gozatu zeure irabaziez. **kutxa** hari guztiak mugituko ditugu. **Titirijai '10 jaialdiaz** goza dezazun.

Horregatik, beste urte bates kutxa, bere **Gizarte Ekintzaren** bidez, ekintza hau babesen du. **Gipuzkoar eta bistari guztiak** bultzatu nahi ditugu **Titirija'10** ikuskizunari zuku guztia atera diezaloten. Hainbat herrialderako txostengiloak izango baitira, hala nola, Argentina, Kanada, Kuba, Frantzia, Italia, Japonia eta Suitzarak, gero 5 autonomia erkidegatarik, etorriko diren guztiak batera. Eta guztiak helburu bera dute: oski eta handienaz ahazteazina izango den **Ikuskizuna** elkarrekin. Egizu amets **kutxaren** eskutik, berriro ere, **Titirija'10** honetako magarekin.

TITIRIJA'10, Tolosaldeko Nazioarteko Txostengilo Jaialdaren 28. Edizioa. Azaroaren 27tik abenduaren 8era bitartean.